


Erabat ikustezina

Ondoko argazkian ikus dezakezuen prototipoak urte honen amaieran burutuko du bere lehen hegaldia. Lockheed Martin eta Boeing konpainiek *Darkstar* izena jarri diote eta aurki zeresan handia emango du. 450 kilometro orduko abiaduraz, 20 kilometroko altueraraino irits daiteke eta etenik egin gabe, 24 ordu eman ditzake jarraian



450 kilometro orduko abiaduraz, 20 kilometroko altueraraino irits daiteke eta etenik egin gabe, 24 ordu jarraian eman ditzake zeruan erabat ikustezina den *Darkstar* izeneko hegizkin berri honek.

zeruan. Bistan denez, ez da edozein erabilpenetarako sortu hegazkin berria. Aitzitik, betekizun militarerako bereziki diseinatuta dago eta helburu hori bete ahal izateko, radarraren aurrean ikustezin bihurtzen duten bi sistemak daramatza. Dakigunez, irrati-uhinak igorritik objektu baten posizioa kalkulatu dute radarrak. *Darkstar* hegazkinaren ezarritako sistematako bat diamante-

-egiturako pantailek osatzen dute: irrati-uhinak desbideratzen ditu eta atzera radarrera itzultzen direnean, ahu-legiak dira hegazkinaren posizioa zehaztu ahal izateko. Bigarren sistemaren funtsa ordea, irrati-uhinak absorbitzean datza. *Darkstar* rren kanpoalde osoa RAM izeneko materiallekoa da. Substantzia horrek radarrak igorritako irrati-uhinak erabat zurgatzen ditu eta urrats horretatik ez da uhinik askatzen. Radarrera ondorioz, ez da hegazkinaren berririk iristen.

Etxeraino lebitazioari esker

Etorkizuneko hirietan bizi ahal izateko, altuera handietara ohitu beharra izango dugu. Tokion aurkeztu berri duten proiektuaren arabera, 800 metroko eraikuntzak aurki hasiko dira altxatzen, perretxikoak bailiren, hiriaren erdialdean. Alabaina, bertaraino iritsi ahal izateko, orain arteko igogailuak moldatu beharko dira. Kable-bidezko igogailuek izan ere, ezingo lukete 800 metroko distantzia egin segurtasun-baldintza minimoak betez. Ir-

tenbidea lebitazio magnetikoan datza. Japonian aski ezaguna da lebitazioaren erabilpena edo zehatzago esanda, lebitazio-bidez berebiziko abiaduran higitzen diren trenak. Teknologian Zentru nagusietan lebitazio magnetikoa ahalbideratzeko sistemak aztertzen ari dira. Maila handiko borroka izango dela aurrikus daiteke.

Errealitate birtuala ukituz

Ukimena artifizialki berritu ahal izatea errealitate birtualaren erronka nagusitako bat da gaur egun. Ikusmenaren arloa garatu eta gero, bigarren mailakotzat jotzen diren zentzumenei buruzko ikerketari ekin zaio. Uste baina luzeagoa izango da ikerketa. Hori guztiaren isla da Stuttgart-en burutu berri den nazioarteko bilkura, VR World izeneko. Errealitate birtualaren garapenean ikertzen diharduten erakunde nagusiek azken aurkuntzen berri eman zuten bertan. Eredu desberdin asko ikusi ahal izan zen eta itxura guztien arabera, erabat fidagarria izango den eredu estandarizatu oraindik nahikoa urrun dago. Aurkeztu ziren prototipoen funtzionamendua sistema desberdina izan ere, egitura-mota guztien abiapuntua bera zen: gizakiaren esfortzu-sistemak imitatzea.

Multimedia neurriera erabiltzeko

Bidaiatzea ez da sekula orain bezain entretenigarria izan. Ez guztiontzat ordea, Singapurreko Singapore Airlines konpainiaren bezeroentzat baizik. Izan ere, bidaiari bakoitzak bere gustu edota beharren arabera erabilgarri du jadanik multimedia-sistema indibiduala. Eserlekuaren aurrealdean ezarritako pantailatxoan bideo-proiekzioak, informazio orokorra, telefono- eta fax-zerbitzuak, jokoak, eros-sareak eta abar luze bat aukeratu ahal izango du. Edonora zoazelarik ere, lehorrean eskaintzen zaizkizun zerbitzuak hegazkinatik bertatik eskura daitezke, hala nola, hotel-erreserbak egin edota zinerako txartelak erosi.



Singapurreko Singapore Airlines konpainiaren bezeroek bere gustu edota beharren arabera erabilgarri du jadanik multimedia-sistema indibiduala.

